

# ZER

**BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ\***

141n. Zenbakia Orrilla (Maiatza)

1990



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA  
KULTURA SAILA  
LAGUNTZAILLE



**ARABA'ko ARMENTIAN'n  
ESKUALDEKO ZAINDARI  
DAN  
PRUDENTZIO DEUNAREN ELEIZEA  
(Jorraillaren 28'an jaia)**

OMENEZ

# EUSKAL BASERRIAK: "ZORROTZE"<sup>n</sup> IRU LEKAIME TA ABADÉ BI

Gure Paulin Solozabal olerkariak sarritan izaten dau omen-olerkiak egiteko aukerea. Ba-dira, izan be, gure Euskalerrian omena artzeko gai diran gizonak, andrak, sendiak eta erriak.

Gaurko onetan, Morga'ko baserri bat artu dau, baserria eta bertan bizi dan sendia.

Olerkian gauzak aitatu baiño ez dira egiten, baiña arazoa ondo ulertzeko, jakingarri batzuk bear dira. Morga'n. Andra Mari'ko eleizatik urrean dago Zorrotze izena daroan etxea. Lenengo aapaldian zeaztuten dau tokia. Bigarreanean etxe orretan egin diran lanak eta bizi izan diran gizonak aitatzen dauz, irugarreanean asabak gogoratzen dira. Eta laugarren aapaldira sartuz, gaurko sinideak gogoratzen diranean, etxearen ateak zabaldu egin zirala gogoratzen dau, mundu zabalean zear joan zirala ango seme-alabak. Or ulertu bear da, sendi orretatik, idazpuruan aitatu dan lez, iru lekaimek eta abade bik urte dabela. Abade batek Kantabria'ko Hoznayo'n eta inguruetan egiten dau bere lana, bestea Bizkai'ko Fika'n da abade aspaldiko urteetan. Lekaimeak Bernardo'tarrak dira eta Santander'en dagoz euren lekaime zeregiña beteten. Beste anai bat Colombia'n bizi da eta etxean amaren ondorengo lez bizi izan dan arrebea, oraintsu joan jaku Aitaren etxera.

Argi ikusten da ba, sendi au mundura zabaldu dala, argi ikusten da Zorrotze baserrian lana egin dala, baiña batera munduaren argia izanez.

Olerki onen edertasunak billatzekotan, bi gogoratuko neukez nik, tokizeazketa egokiak alde batera itzita: Umeak, Euskalerriko seme-alabak, larrosa usaingarri lez eta gure baserri aintzagarriak, ortzian argi egiten daben izarren antzeko agertzen dira.

Bizkargipeko lurralde maite,  
dana tontorrez jantzia,  
ikuspegia oso ederra  
eguzkiak igurtzirik;  
zelai ta solo eta lubarri  
izerdiz, ondo, bustirik,  
aurrean dauka zeru ortzia  
gallurak besarkaturik.

Euskalerriko bizitz oiñari  
solo landuak ugari,  
poza darie arto ta gari  
udabarri maitegarri;  
gure asaben bizi-bidea,  
beti, zentzunez ongarri,  
argi-bidea zabaltzen eben  
sendiaren omengarri.

Gure asaben gizontasunak  
eukan arpegi argia,  
aren sinismen eta oiturak  
ba eben indar bizia;

egunik egun, leialtasunez,  
egien lan ta otoia,  
zeru ta lurra alkaturikan...  
bizitza zoragarria!

Baratz orretan jaioten ziran  
larrosa usaingarriak,  
Euskalerriko seme-alaba  
kristau adorez jantziak;  
MORGA gaiñeko "ZORROTZE" etxek  
zabaldu zitun atiak,  
zoaze mundu zabalez zear  
seme-alaba maitiak.

Bizi ta gatza, lan eta neke  
alkaturik bekokian,  
ekin ta jarrai itzez ta otoiz  
argi zabaltzen lurrian;  
gure baserri aintzagarriak  
izarrak dira ortzian,  
gizadiari on egin nairik  
giza osotasunian.

PAULIN

---

# GURE ERRI-ESKUBIDEAK

---

## DANA KENDU

Gu Erria gara, Euskalerrria. Ez dagigun on aitzu, naizta gure inguruko erriak kondaira aitzu eta alboratzeko alegiñak egin.

Erri-eskubide guztiak kendu euskuezan gizaldirik gizaldira: Batzutan geuk emonda, beste batzutan agintarien arteko artu-emonak eta ezkontzak bide zirala eta iñoz, lenago Naparroan eta oraintsuago beste eskualdeetan, gudaren bidez.

Milla eratara egindako lapurretea da ba, gure erri-eskubideak kentzea. Etorri ete da zuzentasunaren aldia, bakoitxari berea emoteko?

## ZUZENTASUNAREN EGUNA

Aspaldion itxaropenezko berbak entzuten gagoz: Erri-agintaritzea edo demokraziaren aldia etorri dala, erriak askatasuna lortzen diarduela, zapalkuntzak alboratzeko sasoi dala... Eta on munduko bazter askotan olan dala dirudi, Euskalerrrian izan ezik. Euskalerrirako ez dabe baliorik olako jokabideak. Euskalerrriak ez ei dauko erri bat, Iparraldea, Naparroa ta Euzkadi alkartuko dauzan erri bat izaterik. Berlin'go ormea bota bearrekoa ei zan, baiña ez Euskalerrrian Iparraldea ta Egoaldea banatzen dauzan muga. Emengo egoereak ez ei dako zer-ikusirik angoagaz.

Baiña guk argi esan bear dogu: Zuzentasunak eskatzen dau, gizaldien joanean kendu jakun buru-jabetza osoa biurtzea. Geroko kontua da zelako artu-emonak izan bear doguzan, Paris'egaz naiz Madrid'egaz.

Zori txarrez, eskubidea bera aitatzea be, lege bazkunaren giroan sortu dan arazoa kontuan dala, ez ei da gauza egokia.

## ERRIA GARA

Guri erri-izatea bera be ukatu egiten dauskue. Ez ei daukagu olako eskubiderik, erria ez garalako.

Baiña guk ondo dakigu erria garana eta erri-eskubide guztiak eskuratu eta zaindu bear doguzana.

Alemania erri bat dala ez da ukatzen, orregaitik arresi edo orma on bota egin bear da, baiña Euskalerrria ez, emengo mugak ez dira kendu bear.

Lituania aberria ei da eta Errusia'k jabetza au osoan aintzat artu bear ei dau, baiña Euskalerrriak ez, onek ez dauko olako eskubiderik...

Jakin begi mundu guztiak Erria garala, gitxienez Lituania dan bestean garala aberria eta arek dauzan eskubideetatik bat bera be ez jakula ukatu bear.

Orixe da zuzentasunak eskatzen dauana, on bakera-ko bide bakarra, orixe gogorkeria ta izukeria alboratzeko area.

Ez dogu onartzen gogorkeria edo izukeria eskubide orreik lortzeko bide Iez, baiña ezin ukatu eskubide orreik sendo eskatu bear doguzala, eta lortu-arte ekin eta ekin.

Zalantza barik, asko aurreratu gara baiña geiago da egiteko geratzen jakuna.

## IZKUNTZA TA JAKINTZA

Erri-eskubideak lortzeko egiten dan errigintzako Ian orregaz batera, geure erri-izateari eutsi bear datsagu, eta erri-eskubideari eusteko biderik onena geure jakintza edo kultura, geure izkuntza batez be aurrera ateratea da.

Orretan gurtiok egin geinke eta egin bear dogu Ian. Ez dagiela esan gure ondorengoak: "Emen bai izan zan erri jator bat".

# ERROTAK EUSKALERRIAN

Errota berbea entzuten dogunean, bear bada geienoi, aize errotak datozkuz burura, au da ta geien zabaldu jakun irudia. Irudi au okerra da gure artean gero ikusiko dogun legez.

Bestalde, errotagaitik errotetxea ulertzen dogu, eta au bere ez da olan. Errotea, eioteko arri biz osatutako makiña ulertu bear dogu-ta.

### KONDAIRA APUR BAT

Euskalerrria'n, garai baten, errotak edo errota-lanak garrantzi andia euki dabe. Bizkaia'n bakarrik seireunetik gora izan ziran errotak sasoi baten. Kontuan euki bear dogu euskaldunok uruna oñarrizko jatekoak egiteko erabilli izan dogula aintziñako gizonetik gaur egunera.

Era askotako errotak euki doguz gure errian:

**Esku errotak:** Zarrenak, antziñako gizonak erabiltzen ebazanak. Desagertu dira. Onek, eskuagaz mobiltzen ziran. Ez ziran besterik arri bat beste baten gainean baño, biak biribillak, eta goiko arriaren ertz baten makiltxo bat egoan eskuagaz oratuteko eta bueltak emonaz goiko arriari eragitzeko.

**Aizerrotak (Aizaboluak, aizigarrak):** Aizearen indarra erabiltzen eben. Gitxi erabilli ziran gure errian. Erdi-aroan asi ziran erabiltzen, baiña toki egokiak eskasak ziranez ez eben askorik iraun.

**Marerrotak (Maraerrotak, maraboluak):** Itsasoko mareen indarrez egiten eben lan. Marerrotak oso gitxi izan dira. Errota onek erreka zabal eta ondo gitxikoetan kokatzen ziran, Gernika'koan a.b.

**Lurriñerrotak:** Lurriñarren indarra erabilliz. Labayru'k kasu bat baiño ez dau aipatzen, bera Bermeo'n.

**Boluak edo errotak:** Bear bada onek dira jatorrizkoak beste mota guztiak bolu edo errota atzizkia daroeta. Beste errota motak baiño ugariagoak izan dira boluak, eta gaur egunerarte iraun dabe. Askok burdiñoletan daukie jatorria.

Errota batzuk jaurerri, dorretxe edo etxe garrantzitsuen bateri lotuta egon dira. Beste batzuk auzo bateri, eta irugarren batzuk ez dabe iñongo loturarik euki.

Batzuk lau arrikoak izan dira (eskasenak), beste batzuk iru eta bikoak, eta geienak batekoak. Bostekoak bere egon dira, baiña kasu bereziak izan dira onek. Arrien

kopurua gauza biri dagokio: errekearen uren indar ari, eta lan multzoari, au da, etxerako edo bezeroentzat biar egiten dabenak.

Ikusten dan legez, bakoitzak lan-kopuru ezberdiña dauka eta ondoren, arriak bere, kopuru orren arabera egongo dira.

### LEGE APUR BAT

Legeari buruz, esan bear da, burdiñolen lege berbera jartzen eutsiela errotei bien artean dagozan berdintasun-ekaitik. Baiña gainera, Forua' ren VIII. legearen XXXV. atalean, errotariak zorroak pisatzeko neurriak euki bear dabezala diño. Balantza erromatarra debekatuta egoan eta neurriak, bardiñak izan bear ziran Jaurerri guztian. Au betetzeko, eleizurre bakoitzeko "zintzoak" ziran legea beteraztearen arduradunak.

Garaua errotara eroaten zanean pisatu egiten zan eta era berean gari orretatik ataritzen zan uruna bere. Bata-bestearen artean alderik bazan, seireun marabediko zigorra jartzen jakon errotariari. Diru onen erdia bideak konpontzeko erabiltzen zan, eta beste erdia salazaille, justizia eta beterazlearen artean banatzen zan.

Nafarroa'ko Forua' ren seigarren liburua seigarren atalean, errotei buruzko beste gauza batzuen artean, errota barriak eraikitzeari buruz berba egiten da, eta errota bat, bere burbillak iru buelta emon badauz ezin dala lotu ez sarraru diño.

187910 Garagarrilla' ren 13' an lege bakar bat jarri zan estatu guztirako,

### UR-INDARRA

Esanda dagoan legez, erreken ura erabiltzen eben errotak izan dira zabalduenak Euskalerrri' an. Orregaitik ba, bearrezkoa da ur-indarraren oiñarriak azaltzea.

Ur-indarraren kondaireak, **ur-indar burbillaren** asma-kizunean dauka jatorria. Burbil au, zurezkoa zein arrizkoa zan, eta ertza palaz inguraturik eukan.

Oraiñ lau edo bost milla urte dira gizonak sistema au ezagutzen dauala. Sumer' tarrek, antza, erabiltzen eben urrindarrezko errotea. Erroma' tar eta Grezia' rrak bere, erabiltzen eben urrindar burbilla. Erdi-aroan izan

zan, geien Europa'n zabaltzea. Lanbide askotara egokitu zan gaiñera sasoi orretan. Cipolla jaunak diñoanez bere "Historia económica de la Europa preindustrial"-en, 861n. urterako ba egozan Pikardia'n (Frantzia'n) garagardoa egiteko bear zan maltea zertzen eben ur-indar errotak.

Sasoiko garraiobideak ideien zabalkuntza naiko barea zala kontuan arturik, inguruetara, antza, XIII edo XIV. mendean eldu zan.

Ur-indarraren agerketa gaur egungo beste edozein indarraren asmaketaren neurrikoa izan da.

Ur-indarrak oiñarri onek daukaz:

**Ur iturria:** Erreka bat naiz itsasoa naiz beste iturri batzuk. Ur au aintziratu egin bear dogu. Erreka errotetan aintziratzeko, errekea ezbiderratu egin bear dogu, eta itsas-errotetan mareakaz baliatuko gara. Errekea ezbiderratu ondoren, prest dagoan toki bat urperatuko dogu eta betetzen danean errekea barriro bideratuko dogu. Itsas-errotetan, marea gora datorrenean, aintziratuko dogun tokiko atek igiri bearuko doguz eta marea goren dagoenean sarratuko doguz. Orrela, naiz eta marea jeitsi, urak ez dau urtengo.

Indar potentziala lortu dogu.

**Jaustea:** Pisu batek, zenbat eta goragotik jausi indar geiago artzen dau. Au da legearen oiñarria. Goitasun au lortzeko errekearen berezko berazkadeaz baliatuko gara. Aintzira errotetxea baiño gorago egon bear da, eta era berean errekea aintzira baiño goragotik ezbiderratuko dogu.

Jaustea, toki geienetan, irutik bost metrotarakoa izaten da, baiña akueduktoa daukienak eta burdiñolak izanikoak goiera au baiño geiago daukie. Kasu batzuetan amalau metrotaraiñokoa.

Segunduko jausten diran larogei ta amar inguru ur litroak, bi edo iru lurrin zaldiren indarra lortzen dabe. Indar onek, orduko, amazortziren bat killo arto edo berrogei killo gari eijotea eragiten dau. Zenbaki oneetan aldea egon daiteke kontuan artzen badogu urun mei edo astuna nai dogun, arriak zelán dagozan edo beste ainbat eraskin.

Ona emen "Servicio Nacional de Trigos"-ek 1961'ean baturiko emaitzak:

Errotea	Arriak	Indarra	Errotariak	Emaitza
Ondarra	2	6 C.V.	1	1.100 Kg. Artoa
Utxuene	5	11,25 C.V.	1	25.310 Kg. *
Belendone	2	4	1	3.400 Kg. Artoa
Txomindone	2	4	1	2.300 Kg. Artoa
Landa	3	6,5	1	1.350 Kg. Artoa
Fandagone	2	4	1	600 Kg. Artoa
Eskerrota	2	6	1	1.250 Kg. Artoa
Ola	2	4	1	850 Kg. Artoa

\* Artoa eta garia.

Indar potentziala indar eragille biurtu dogu.

**Mekanika:** Indar eragillea erabiltzeko zenbait tramankulu bear doguz. Garrantzitsuena ezagutzen dogun urindar burbilla dogu.

Tramankulu geienak zurezkoak ziran. Zugaitz mota ezberdiñak aukeratzen ziran tresna bakoitzaren zeregiña kontuan arturik: Pagoa, ur azpian egozan tresnak egiteko erabiltzen zan usteltzen ez dalako. Aretxagaz ardatza egiten zan ol gogorra dan ezkerro. Urkia, osterá, biguna dalez, ontziak egiteko. Gaztañea urun-askak, toberak, e.a. egiteko. Agiña pixua jasan bear daben tramankuluak egiteko.

## UR-INDARRA ERABILTZEKO OIÑARRIZKOA DANA

**Presea:** Errekearen urak gelditu eta ezbiderratzeko erabiltzen dan ormea dogu. Orma onek, alde batetik bestera zearkatzen dau errekea.

Zementozkoak izan orduko arri landuzkoak ziran. Orma au sendotzeko, urak jotzen eban aldetik arri-txingar eta arez egindako aldapa bat egiten zan. Aldapa onek, urak ormea biziki ez jotzea eragiten eban.

**Ponportea edo konpuertea:** Onen lana, errekatik eta errotara doan ura neurtzea da. Kaltzearen sarrera da.

## EUSKAL ASTEA

Ponportea edo konpuertea tornillo andi baten bidez erabiltzen da. Onegaz, atea altza zein jeitsi egiten dogu. Ura artu ondoren atea sarratu bear dogu arrazoi bigaitik: Errotea ez dagian ondatu eta beragoko beste errote ura artu dagien.

**Kaltzea:** Presatik eta errotara doan ur-bidea.

Kaltzeak, askotan, neurri andiak eukiten dauz. Luze-rak orografiaren arabera emongo da. Toki aldatsua bada kaltze laburra eukiko dogu. Ostera, leuna bada luzea izan bearko da urrindarra lortzeko bear dan goiera lortu arte. Batzuetan kaltzetatik doaz urak errotetxetik errotetxera. Au da, presa batetik ura lortuz errota bat baiño geiago ibillarazi. Ba dagoz kaltze bi daukiezan errotak erreka bitik artzen dabezelako urak. Beste batzuei bardiñ gertatzen jake baiña kasu oneetan bigarren kaltzea errotetxetik errekkara doa. Au errotetxea errekatik urrun dagoanean gertatzen da.

Dana dala, kasu geienetan eundaka metro kaltze egin bear dira. Ba dagoz kilometro erdi baiño geiago daukien kaltzeak eta kasu batzuetan kilometrotik pasa bere. Zabaleran metru bat edo bat eta erdi eukiten dabe.

Orografi gora-beratsua danean akueduktoak erabilli bear dira. Onen neurriak naiko ezberdiñak dira, baiña beti deigarriak. Bermeo'n, adibidez, dagozen bietatik batako ogei ta emeretzi (19) metroko luzera eta zazpiko (7) goibera dauka, eta besteak ogei ta zortzi (28) metro luzera eta bosteko (5) goibera.

**Andapadea edo anteparea:** Ura aintziratzen dogun tokia da. Onek, orokorrean alde bi daukaz, bata lurraren gaiñean eraikia, eta bestea lurpean. Ba dagoz mendiari zati bat kenduta eginda dagozanak, au da, ezelan-ko eraikuntza barik, mendiaren aldapeaz baliatuz.

Errota batzuk (gitxienak) antepara bi daukez, bat errotearen alboan eta beste bat urruntsuago. Lenengo-koan, ura indar potentzial legez dago, eta bigarrenan erreserba modura.

Bada-ezpada, aldetxo bat baixuago eukiten dabe ur geiago sartu bada bertatik urten daian. Toki oneri "ganeza" deituko jako urak ganez egiten daualako.

Andaparearen bekaldean errotetxeak daukazen arrien beste ur urtera daukaguz. Ur urtera bakoitzak turbiña bat ibillerazten dau. Andapaya bakoitzak erroteak daukazen arri guztiak ibillarazteko beste ur euki bear dau. Bataz beste, irurogei ta amabost m<sup>3</sup> erabiltzen dira turbiña bakoitzeko. Ba dagoz, ostera, berrogei ta amabost erabiltzen dabezenak edo ta larrogei da amarrera eltzen direnak. Kalkulu onetan kontuan euki bear da zein dan errotearen jatorria (burdiñolak ur asko erabiltzen eben), zenbat arri joko eukazan asiera baten, eta abar.

Andaparearen ormak oso zabalak izaten dira uraren indarra gainditzeko.

**Errotapea:** Errotearen bekaldea dogu. Ura indar eragille biurtzen dan tokia. Urak "txifloietatik" urteten dau turbiñak ibillaraziz. Errotako alderik gogorrena da. Ezetasun, indar, erresistentzi, iraunkortasuna eta beste batzuk dira ango tresnek bete bear dabezan baldintzak. Ondo zaindu bear da errotearen alde au, ezer gertatzerakoan lan egiteko arazo geien daukan alde da eta. Oñarrizko tramankuloak gaiñera berton daukaguz.

Ura, toki onetan bere bete-bearra osotu ondoren, errekkara doa barriro.

Onez gaiñera, beste gela bi daukaguz, baiña urindarraz zer ikusi zuzenik ez daukien legez gaiñetik asalduko doguz orain eta beste atal baten sakonago ikusiko doguz.

**Errotea:** Errotapearen goiko alde da. Eiote lana egiten dan tokia. Errotapean indarra sortzen da eta errotea erabilli.

**Errota gaiña:** Gordeleku legez eta garbitasun lanak egiteko erabiltzen da. Ez da errota guztietan egoten.

### ERROTEAREN OIÑARRIZKO TRAMANKULU GUZTIEN IZENAK ETA ZEREGIÑAK

Tramankulu oneen azalpena egiteko indarraren bidea jarraituko dogu. Au da, urak bere lana egiten dauan tokitik eta indar onen aldaketak jarraituz.

Tramankuluen izenak antzekotasun andia daukie gitxienez Bizkaia'n.

Zati bitan bananduko doguz: errotapekoak eta errotakoak.


### ERROTAPEAN

**Txifloiak:** Andaparako urak indar andiagaz urteten dau kono oneetatik. Burdiñezkoak zein zementuzkoak izan dira azken sasoiaren. Aintxiña baten pagozkoak ziran. Kono onen alde zabala ormeari lotuta dago eta istutik urteten dau urak. Era onetara indar geiago artzen dau.

Erritatiek igiri eta sarratuteko kate batez baliatuko gara. Kate au palanka bateri lotuta dago eta palanka onen beste aldean txifloien tapea dago. Kate au askatzen dogunean txifloiak daukan tapatxo igiri egiten da eta urak urteten dau. Sarratuteko katetik tiratu bearko dogu.

ILTIKTO A. AS771Y'/.ARKA/A

RFlu iEOKO F:KI/ OT4ti



**Burbillak:** Burbillak eta ardatzak osotzen dabe turbinia. Burbillak horizontalean jarrira dagoz, oster, burdinoletan bertikalean jartzen ziran. Metro bat eta ogei ta amar zentimetrotik metro bat eta berrogei ta amar zentimetroko diametroa eukiten dabe, eta ogei zentimetro inguruko goiberea.

Izatez, katillotxu batzuen bidez lotutako burbil bi dira. Katillotxuen zenbakia ez da beti bardiña izaten, eta ogeitik berrogeira egoten dira.

Arri joko bakoitzeko burbil bat bear da.

**Ardatza:** Urak burbilletan sortzen dauan indarra ardatzaren bidez eltzen da arrietara. Ardatz au, egurrezkoa izaten da.

Ardatzaren berengo aldeak, burbilla zearkatu orduko, "**maia**" izeneko oltzar baten artzen dau atsedean. Ardatzak, biraka dabillenean erresistentzia gitxitzeko meta-

lezko punta bat dauka: "**txoria**". Txoria batzutan brontzekoa izaten da.

Ardatzaren goiko aldean burdinhezko barra bat daukagu: "**Espatea**". Burdiñ au ardatzaren erditik sartzen da, eta ardatza apurtu ez daian ziri batzuk sartzen dira espatearen bekaldearen azpian. Goragotsuago, uztai batzuk jartzen jakoz ardatzari espatea ondo lotuta egoteko barruan. Espatearen gorengo aldea goiko arriari lotuta doa.

**Maia:** Esanda dagoan legez, oltzar bat da. Alde batetik ormeari lotuta dago, eta bestetik errotara doan burdinhezko barra bat dauka: "**altza-bajea**". Tresna onen bidez maiea altza edo jeitsi egiten da, eta onegaz batera ardatza eta era berean goiko arria. Arriak urrunduz edo urretuz urun astunagoa edo meiagoa lortuko dogu. Gero azalduko dogu zeregiñ au, eioteari buruz berba egiten dogunean.



# EUSKAL ASTEA

Maiearen erdi unean, "opilla" izeneko metalezko platertxo baten ardatzaren txoria jartzen da.

**ERROTAN:** Ardatzak goiko arria ibillarazten dau, baiña arriekaz asi orduko beste tresna bat aztertuko dogu.

**Toberak:** Tramankulu au garia arrien bitartera gitxi-gitxika jausi daiten erabiltzen da. Tobereak aide garrantzitsu bi daukaz: Goian beian baiño zabalagoa dan kaja bat. Kaja onen azpian, tapa bat. Tapa onek tundur baten amaitzen dan kaño bat dauka. Kajan daukagun garia kaño onetatik joango da arri-tatera jausiarte. Tapa au mugikorra da. Atzekaldetik kajeari lotuta dago, baiña aurrekaldetik edo tundur aldetik altza zeññ bajatu daiteke. Eragiketa au tornillu baten bidez egiten da. Tundurra bajaten badogu garauak ariñago urtengo dau altzaten badogu baiño.

Tobereak lotura bi daukaz. Aga batetik urteten dauan oltzar batek zearkatzen dau goiko aldea. Oltzar onen beste aldea gelearen goiko aldera dago lotuta kate batez. Toberea ia zintzilizka geratzen da.

Toberearen beko aldean goiko arriraiño doan egur bat daukagu. Goiko arria biraka asten danean egur au

saltaka asiko da eta toberea be saltaka jarriko dau. Mobimentu onek garauak urtetea eragingo dau.

Egur onek, zarata andia egiten dau errotea lanean dabillean. Zarata au urrunetik entzuten da eta entzuten ez bada errotariak ba daki errotan zeozer txarto dabillela.

**Arriak:** Eioteari buruz berba egiterakoan sakonduko dogu gai au. Bein, arriak pareka doazela bakarrik esango dogu, goikoa izanik biraka dabillean eta bekoa geldik dagoena. Altza-bajearen bidez urrundu edo urretu egiten dira.



Estaldua egoten dira lanean dabiltezenean autsak ez urteteko.

**Urun-askea:** Arriak garaua urun biurtzen dabenean, urun au urun-askara jausten da. Urun-askea olezkoa izaten da eta sakuzko oialakaz estaltzen da.

Errotearen aide teknikoaz azalduz gero, goazen zeññtzuk diran gizonak egiten dauzan edo bere jakituria erakusten daukuen lanak ikustera.

L.IFR TO K. AS71117...ARAC:1

BIM IP...OKO F.R.ROTA K






ERROTA GAIÑEAN

Esanda dagoan legez, ez daukie errota guztiak gela au.

Garbiketa lan guztiak egiteko bear dira aipatutako

tresna eta tramankulu guztiak egoten dira.



Garbiketa lana amaitu ondoren garaua toberetara botaten da gela onetako bereinganean dagozan zuloetatik.



# EUSKAL ASTEA

A.,RF:1170 K.A5T1,Y7.ARR.:UA

61••R IIIiOKO F:KfOTAK



**EIOTEA:** Eioatea garaua urun biurtzea da. Errez ikus-  
toden dogun ekintza onek bere teknika bear dau.

## Zer eioten zan

**Eskurra:** Aintxiña, eskurra zan euskal gizonarentzat  
elikaduraren oiñarrria. Eskur eioagaz edo urunduagaz  
taloaren antzeko ogia egiten eban.

**Artoa:** Artotik era bitako uruna atarutzen dogu: **Artou-  
runa** taloa zein ogia egiteko erabiltzen da. Urun meia  
da. **Artobirriña:** Abereak elikatzeke erabiltzen da. Bes-  
tea baiño urun astunagoa da.

**Garia:** Onegaz bere, urun mota bi daukaguz: Bata-  
gaz ogi zuria egiten da zaia osorik kentzen jakolako.  
Besteagaz ostera, zaia be urundu egiten da. Urun onek  
baltzeranago urteten dau. Tremesa egiteko uruna dogu.

Garia geien lantzen zan garaua da.

**Garagarra:** Taloa eta ogia egiteko erabili arren, neu-  
rri andienean abereak elikatzeke erabiltzen zan.

Urun mota guzti onek lortzeko bide ezberdiñak eroan  
bear dira, naiz eta pausorik garrantzitsuenak bardiñak  
izan.

Garaua errotara eltzen danean, pixau egiten da esan-  
da dagoan legez. Gero, eta eio orduko garbitu egin  
bear da. Lan au era bitara egiten da, edo obeto esate-  
ko, tresna ezberdiñak erabilliz. Errota txikietan **galbaia-**  
gaz banatzen dira artoa eta zaborra. Galbaia ez da  
besterik metalezko sare bat daukan olezko burbil bat  
baiño. Garia bertara bota ondoren esku biekaz oratuta  
birak emon bear jakoz. Errota andietan makiña bat  
erabilliko dogu. **Linpia** dauko makiña onek izena eta  
mobimentu orizontaldun sare baten eta aize egiteko  
pala batzuetan oiñarritzen da. Makiña au eragiñgailu  
batez zein errotako ardatzen baten birak erabilliz dabil.

Garbiketa lana amaitu ondoren eiote lana asten da. Garia arri bitartera bota orduko uruna me edo astun gura dogun jakin bear dogu. Urunaren metasuna edo astuntasuna era bitara lortu daikegu. Alde batetik maia- ren bidez arriak urrunduz edo urretuz. Zenbat eta urru- nago astunago eta zenbat eta erreago meiago. Beste alde batetik botaten dan garau kopurua ugarituz edo gitxituz bere, egiten da. Zenbat eta garau gitxiago meia- go uruna, eta zenbat eta ugariago astunago.

Arto-garua batu barria danean, au da, sikatu barik dagoanean arriak urundu egin bear dira arri bitartean oreutzerik gertatu ez daiten. Laban sikatutako garua- gaz, au da, labigarragaz ez da olakorik gertatzen.

**Errotarriak:** Arriak ez dira bardiñak izaten ez garau guztientzat ez eta urun mota bakoitzarentzat. Bi edo iru arri jokodun errotetan, arri joko bakoitzak bere egin- kizun berezia betetzen dau. Batzuetan, bakoitza urun mota ezberdin bat lortzeko erabiltzen da, eta beste batzuetan (geienctan) garau-mota ezberdiñak eioteko. Onen artean geien erabilli izan diranak aztertuko doguz.

**Gariarriak:** Ospe andienekoak Frantzia'koak eta Ara- ba'koak ziran arabatarra biguna izanik eta frantzeza gogorra. Era berean Araba'koak urun garbia ataratzen eban eta Frantzikoak zaitua.

Arri onek bi edo iru zatiz osoturik dagoz eta uztai batzuen bidez lotzen dira zati onek. Metro bat eta ogei ta bost ogei ta amar zentimetroko diametroa dauke, eta gitxi gora bera ogei ta amar zentimetroko lodiera.

**Artoarriak:** Gariarriak baiño meiagoak dira, ogei zen- ti-metrotik ez dira pasaten. Ainbat tokitik ekartzen ziran.

**Arrien jabotea:** Lan asko egin ondoren arriak birlan- du egin bear dira. Birlantze au errotariak berak egiten eban argiñaren tresnak erabilliz. Lan au ekintza bitan oiñarritzen da. Lenengoz goiko arria altza bear eta au peskantearen bidez egingo dogu. Peskanteak beso mugi- kor bi daukaz, tenazen antzera. Beso onek zabalduz biribil-erdi baten irudia daukagu orrela arria aidean daukagunean birak emoteko erea eukiko dogu. Arria altzaten dogunean iruntzi egingo dogu landu bear dana goiko arriaren bekaldea da eta.

Birlantzeak lan bi daukaz:

Lenengokoan kontuan euki bear dogu arri au bes- tearen gaiñean ipinten dogunean bien arteko zuloa zaba- lgoa izan bear dala erdikaldean eta ertzetarantz istutuz joan bear dala. Zuloak iruki edo ziri baten antza euki bear dau garua geiagoka urunduten joateko.

Bigarren lana ozkatzea da. Ozkok erdiunetik ertze- tarantz doazen kaño batzuk dira. Ozka onei dagokie garua birrinduteko lana.

Lan onek amaitu ondoren barrero jartzen da arria bere tokian peskanteagaz.

Ganeko arria larregi gastatzen danean beko aldean ipinten da.

Neguan, otz asko egiten dauanean kontu asko euki bear da lan eginda gero arria otzberoaren aldaketagaz apurtu egin daiteke eta.

## GARRAIOA

Aintziña burdieten egiten zan. Joanari eta etorriari bieie ataratzen jaken mamia. Errotaratzea garauaz eta etxeratzea urunaz egiten ziran. Uruna beste joan-etorri baten eroandakoa izaten zan. Gero kamioietan asi zan garraioa egiten. Burdiz zein kamioiz ibilli, errotetarantz- ko bideak beti zaindu dira ondo eta batzuetan auzo- -lana bazan, beste batzuetan, azken urteetan legez toki askotan, erakundeen lana izaten zan.

## NEURKETA ETA PIXAKETA

Garau kopurua ezagutzeko neurtu edo aztatu egiten da. Neurtzeko, kaztañondoizko kutxa batzuk erabilliko doguz. Garua kutxa onetara bota ondoren ol zuzen bategaz lisotuko dogu.

Neurri arruntena **zelemiña** zan eta **anegea, anega erdia** edo **kuartea** gitxiago erabiltzen ziran.

Aztatzeko edo pixatzeko, esan dogu legeari buruz berba egin dogunean, zelan balantza erromatarra debe- katuta egoan.

Pixaketa balantza andi bategaz egiten zan. Pixuak, asikera baten, arrizkoak ziran eta oneen igadura bardin- tzeko burdiñezko aro batzuk jartzen jakezan. Oneek, errotariak sistema amartarra erabiltzen beartu ebeza- nean, debekatuta geratu ziran. Gizaldi onen bigarren amarkadan gertatu zan au eta aurrerantzean gaur egu- nerañño iraun daben burdiñezkoak erabilli dira.

Pixuen neurririk arruntena **librea** izan da, onen azpi- tik **ontzea** eta gaiñetik **liberdia, erralde** eta **arrobea**.

Neurriak eta pixuak ez daukie balore bardiña egoal- deko lau lurraldeetan. Adibidez, anega erdiak edo **fane- ga erdiak Araba'n** ogeita zazpi ta larogei ta bat (27,81) litro ziran, **Gipuzkoa n** ogeita zazpi ta irurogei ta bost (27,65) litro eta **Bizkaia'n** ogeita zortzi ta berrogei ta sei (28,46) litro.

**Nafarroa'n** ostera, **roboa** erabiltzen zan; onek ogeita zortzi ta amairu (28,13) litro eukazan. **Libreagaz** gauza bardiña gertatzen da: **Araba'n** lareun da irurogei gram- okoa da (460), **Gipuzkoa'koa** lareun da larogei ta amabi (492) gramozkoa eta **Bizkaia'koa** lareun da larogei ta zortzikoa (488).

## EUSKAL ASTEA

Oneik guztiak, amartar sistemara egokitu ziran gitxi-gitxika.

Zorroak aztatu ondoren zein dan bakoitzaren pixua jartzen jaken zenbakuntza erromatarren antzeko idazkera bat erabilliz. **Ander Manterola** jaunak olakoxe bat aipatzen dau bere "Industrias tradicionales en Zeanuri" lanaren "Molinos harineros" izeneko lenengo atalean. **Manterola** jaunak baturiko sistema au da: marra zuzen bat margozten da eta onen gaiñean idazten dira beste guztiak. Borobil batek berrogei (40) libra adierazten dauz, elkar zut dagoan marreak amar (10) libra eta zear dagoanak bost (5) libra. Oñarrizko marrearen gaiñean ez dagozan marrak bakoitzak libra bat (1) adierazten dau.

Zorroetan beste ainbat marka jartzen dira; euren artean, bezeroaren izena, edo ta errotearena. Azken au Bermeo'ko "Utzuene" errotan sigillu bategaz jartzen zan. Izen onek ipintearen elburua zorroak berreskuratzearna da edo beintzat beste edonok ez erabiltzea.

### ERROTAKO EGUTEGIA

Argi dago izadia eta bere legeak ondo eginda dagozala. Naiz eta errotea urte guztian lotu ez, lan geiago egin bear dauanean euri geien egiten dauan sasoiagaz batzen da. Urrilla'n asten da, illearen izenak diñoan legez, euria botaten, eta ariñago, San Migeletarako, artoa batu da eta abereak lodituteko sasoi bere asi.

Udabarrian eta udean lana eskasagoa egiten da baiña ura bere bai. Sasoi oneetan norberaren errotea baiño gorago dagoan errotea lanean noiz asiko itxaroten da. Lanean asten danean ura berriro doa erre kara eta beko errotakoak bereganatuko dau.

Ur gitxi daukagunean penazago eioten da urun meia, arri bien arteko igurtzia andiagooa dalako eta turbiñak ibillarazteko indar larregirik ez dagoalako.

### ERROTARIAK

Ez dabe iñoiz fama onik euki. Foruan bertan bere errotariei ordaindu bear jakenari buruz berba egiten danean, zelan errotariak eurak gura dabena jasotzen daben diño, eta au dala eta, anegako bost (5) libra jartzen dau gorenko ordainketa lez.

Errotariek euren lanagaitik ez dabe dirurik eskuratzten, garautan edo urunetan ordaintzen jake. **Makilla** deitzen jake errotariak jasotzen dauan sari oneri. Makil bat, errotarien esanetan, urunaren bederatzi edo amargarren parte da. Kontuak atara ezker, bederatzi edo amargarren parte onek fanegako bederatzi eta piku libra

dira. Ikusten danez, au ez dator bat bere ados foruak diñoanagaz.

Errotariek, errotako lanetatik kanpora, beste lanen bat betetzen eben. Arotzaren lana oso zabaldua izan da euren artean, **Manterola** jaunaren ustez errotako tresneri geiena egurrezkoa zalako. Nekazaritza lanetara bere aritzen ziran etxerako jakiak lortzeko baiño ez bazan be.

Garau eta urunaren sartu-urtenak errota askotan liburu baten idazten ziran illeko eta urteko kontuak ataratzeko, denda baten egiten dan legez. Guda ostean, oster, bearrezkoa egin zan liburu ori gobernuaren aginduz. Kontrol au "Servicio Nacional de Trigos"-ek eroaten eban.

Aipatu dodaz "Servicio Nacional de Trigos"-en datu batzuk. Onei buruz errotari batek auxe esan eustan: "Asko engañeten izan doguz orreik".

### ALDAKETAK

Ikusi dogu zelan errota asko burdiñolen aldaketetik datozen. Baiña, zer gertatu da errotekaz? Ezertarako erabilli oi dira sarratu ondoren? Galdera oneek ainbat erantzun daukie.

Errota bat, edo obeto esateko ur-indar sistema bat jabotea lan astuna da. Onegaitik, sarratu diran errota geienak ez dabe biurketik euki.

Lotzen diran beste errotetatik, geienak tximist-indarra lortzeko egokitu izan dira. Au, ardatzaren mobimentua indarsortzaile (jeneradore) bateri erantziz lortzen da. Errota oneen indar-sortzaileetatik lortzen dogun tximist-indarra baserriei, auzoei eta batzuetan erri osoari argi emoteko erabiltzen zan oneik txikiak ziranean.

Beste irugarren batzuk makiñak ibillarazteko sortzen eben indarra. Adibidez, nik neuk ikusitako baten ardatzak naboak ebagiteko makiña bat ibillarazten eban.

Sarratutako edozein errota iru talde onetan sartzen dira.

### ERROTAK GAUR ETA BIAR

Gaur egun errota geienak desagertu egin jakuz. Lotzen diran bakarrak (adibidez Bermeo'n, ikertutako amasei errotatik batek baiño ez eban egiten lan 1983'an) etxerako egiten dabe lan, eta oso gitxi dira bezeroentzat lan egiten dabenak.

Zelan artoa eta gariaren landaketa gero eta eskasagoa izan, era berean joan dira errotak gero eta gitxiago izaten.

Azken uriolak bere, zer ikusi andia euki dabe. Labore gitxi egonarren errotak aurrera jarraitu dabe 1977. urterarte. Uriol oneik dirala eta, ainbat errota ikusi ziran sarratu bearrean, garau barik ez egoan arrazoirik konponketetan dirua gastatzeko eta. Uriol onen kaltea errotetan baiño geiago presetan nabaritu izan zan.

Irurogei ta amazpiko uriolen ondoren errotea konpondu gura ebenak, ez eben gobernuaren baimenik lortu presa barriak eraikitzeke.

Andik eta denpora gitxira, 1983 an, beste uriol gogorago batzuk izan ziran, eta onek izan dira errotak betiko amaitu dabezenak. Ia errota guztiak ondatu ziran errotapeak apurtu eta arriz eta bazaz ondatu ziran.

Alan da guztiz, ez dot nik neuk ezagutzen tramankuluak kendu dautsoezan errotarik. Naiz eta errotek leku asko kendu etxeari, aintxiñako errotariak ezdabe errotea kendu eta jaube barriak daukiezan errotak bere tramankulu guztiak gordetzen dabez. Antza danez iñor ez da ausartzen kondairearen kontra joaten edo bearbada batzuen gogoan antza errotak barriri lanean asiko diran ustea dago.

Erroten geroa argi baiño argiago dago, burdiñolekaz jazo dan gauza ber-bera jazoko da, bi edo iru konponduko dira noizik beñ, eta aurretiaz esanik, jentea ikusten joateko.

ALBERTU ASTUI

## LIBURUAK

Alboan agertzen diran zerrendako liburuak salgai dira «EUSKERA-ZALEAK» 'en idazkaritzan.

Colón de Larreátegui, 14 - 2.º  
Teléfono 423 53 22  
**BILBAO - I**

---

Los libros al lado indicados pueden adquirirlos en las oficinas de «EUSKERAZALEAK».

Colón de Larreátegui, 14 - 2.º  
Teléfono 423 53 22  
**BILBAO - I**

Nora Zoaz .....	600 laurleko
Giza Soiña .....	800 »
Iniciación al Euskera	800 »
Irakurgai errezipolitak I .....	200 »
(Zenbat Urte)	
Irakurgai errezipolitak II .....	200 »
(David Copperfield)	
Aurtxo II .....	100 »
Eginkizunak I .....	100 »
Eginkizunak II .....	100 »
Eginkizunak III .....	100 »
Euskal Irakasbide laburra .....	800 »
(Gramátika X. Peña)	
Diccionario Ikas .....	900 »
Ipuñak .....	800 »
Ipuñak .....	800 »

## ANGULATAN (2n. Saria)

Bear ba da arrantzarik maltzur eta guzurtiena izaten da angula arrantza.

Itxas sarreratik asi eta ibaian gora, parol argi motelak ikusten dira erreka zokodietan.

Lurretik, leorretik diarduenak izaten dira, arrantzale jatorrak baiño, kale-baserritar, arotz eta bestelako ogibidetakoak geiago.

Gau otz eta illunak izaten dira orretarako egokie-nak. Euri-lantxe, sirimiri ta abar noz-nai. Beti ur illun eta "goi tapauetan" aberatsen.

Angularien tresnak iru dira: Baia, kutxa eta parol argia. Kutxa zapala izaten da, egurrezkoa, baiña barren-go egal baten, baikada bakoitzean angula ta ur batera bertaratzen diran lez, ur ori kanpora atarateko alanbrezko sare estu zatitxo bat ipinten dala, ortarako egiten dan zuloan, angulak barik urak bakarrik urten dagian. Ortik gorakoa gizonen jantziak dira. Txapel edo txanoa, gaueko otzaren aurkako jantzi zakar eta oiñetako lodi eta bustirako egokiak.

Onela gertuta bere tokian leiatsu eta setatsu ekin bear izaten dautsa angulariak, baia beti be goruntz duan uraren aurka bear aiña uretan sartuta erabilten.

Angulari bat toki baten, aldatu barik, igarten ba da... amua espanean, esaten dakie arrantzaleak. Au da, zur ibilteko, ziurretik arrantza itxurotsua egiten ibiliko dala-ta.

Gitxi gorabera jakiten da zein tokitan nor dagon.

Batzuk, jakiñarren, erantzun egitsurik emoten ez dabelako, beste aldetik zirikalariak eukiten dabez, edo ta alkarri deika ibilten dira, erdi jakin-miñez, erdi akulari:

—Eup! Ta? Askó?

—Bat-bi, bat-bi or nabil.

—Bat bi bakarrik? Izango dira amabi! Gaur be zугандик urrun ez dira ibiliko libra bi!

—Eta ortik?

—Emen batzutan uts eta bestetan bits.

—Sartu ziri ori beste bateri!

Orrelaxe luzatu eta eteten da gaua.

Ezer ez dagonetan, edo banakak bakarrik dabil-tzanetan, ba dakie aldarak egiten, toki batetik bestera aldatzen.

Kontuan euki mare gorakuan arrantza bear izaten dala, eta ez edonoiz.

Angulea itxasotik sartzen da. Pelota andi ta biribilletan sartzen da, pillotuta, eta bereala banakatzen joaten da, pelotea desegin arte, ur gozoa igarri orduko, eta ibaian zear zabaltzen joan, erreka-aren egaletik gora. Itar-giak be ba dauka zer ikusi angula sarreretan.

Batzuk, erreka ertz batetik bestera ariñago ibilteko, ba dakie, batez be ingurutako baserritarrak, txaneletan ibilten. Txanelak deitzen deutse batel zapalei, batez be erreka ondoetan lurak daukezanak erabilten dabezen txalopei.

Orrelako baten ebillan bein Adiran izeneko bat, Artibai ibaian, goi aldean, Errenteri auzoaren aurrez-aurre, Arkatxa deritxan ur-ertzean. Adiran begi bakardun gazte lerdena zan, inguru aretako baserri baten bizi zana.

Buruan be sartu ez areri goian, bide egalean, zetan ebillanka, iñor urduri egon eikeanik.

Goian, errepidean ebiltzanak, txapel okerrak ziran. Arkatxa alde orretan, bideak errebera egiten dau eta beko zuloa eskutuan geratzen da gokoentzat. Gainera arta zar eta bestelako berezko txaraka, larre eta sasiz betea dago. Origaitik beko txaneletik ezin igarri, baina tartetan argia bai, parol argia, kandela argia, erdi kiñuka lez ikusten eben.

Alako baten txapel okerrak, egon eziñez, fri! fri! fri!... txistua jotzen asi ziran.

Eta Adiran, bear ba da bere lekua iñori ez salatzearen, isil, geldí bere tokian, baia uretan sartu ta atara, ezelako zarata barik, eta bere kutxatxuan ustuten, baian agertzen ziran angula zirin mirrin banakak.

Barríro be txistuka zaindariak, lar eta sasi artean tarteka oartzen zituen argi kinuei begira.

Adiran'ek jaramonik ez.

Ori ikusita gero ta keisu ta larriago zaindariak fri!

## SARIKETA

fri! fri! Eta Adiran'ek, alako baten, adiskide zirikalarien bat izango zalakuan, Penalty! erantzun.

Zaindariai zur, gero ta urduriago, edozein unetan tiroka egiteko gertuten. Orrelakorik pentsatu barik eta bere kala tokian angula banakak baiño ez egozala ikusita, an dua Adiran toki aldaketa egiten, Errenderiko zubi azpira.

Zaindariai, errepidetik eskutuan bere ibillera jarraitzen.

Errenderiko zubi azpian geratu zan Adiran bere txanelagaz, an beste denporaldi bat arrantzan jarraitzeko asmotan, eta gelditzen ikusi ebenean, an duaz izerdi likiñetan Goitizko bide artetik zear, Kitarraneko etxe ertzeraino, txapel okerrak fri! fri! fri! txistua jotzen eta "alto" "alto" deika.

Adiran'en oraindik bere atzetik zeintzuk ebiltzan igarri barik, lagun batzuk ziralakoa, aren txistu otsei Gol! Gol! erantzun eutsen.

Guardiak urreratu jakozan, bata bestearen atzetik, ta Adiran "sursum korda", ikusten ebana sinistu eziñik.

Zaindariai, ezelako begiramen barik, garratz: Zetan zatoz onera? Zetan?

Adiran'ek: Arraiñetan.

—Nun dakazuz arrainak? Nun?

—Eta Adiran'ek, ia utsik, garau banakak egozan angula kutxa erakutsiaz: Ara emen.

—Baina ez dozu esan ba arrainetan zabilzala? Arraiñak nun dozuz? Emen arbola orriak baiño ez dagoz. Zetan ibili zara? Nora jaurti dozu erabillazuna?

Itxuraz bikote arek sekula angularik ez eban ikusi ta artean kontrabandoren bat ebillalakuan, kuartelera eroan bear ebela adierazo eutsoen Adiran'eri.

Inguruko baserritar "maisu" bat agertu eta sartu zan euren artean. A asi zan zaindariei esaten mutil a nor zan eta zelako arrantzan ebillan.

Alperrik.

Adiran berberak "komedia" jarraitu naian, baserritarrari agindu eutsan isil egoteko, berak konponduko zala-ta.

Eta txanela lotu ta Adiran'ek: Zelan nai dozue joatea, bai, parol eta kutxa ta guzti?

—Ez. Itxi "panderu" ori eta parola, baina etorri kutxagaz.

Eta Adiran aurretik eta zaindariai atzetik, an daroe, bere angulatako kutxeagaz, batelean ez bustiteko erabilazan uretako botin eta guzti kuartelera.

Goizaldea zanez, atezain egoanak kaboa agertu arte euki eban atadian.

Ara eroan eban bikoteak ez eutsan itxi nai izan Adiran'eri, gauzak argitu barik eta erabillan kontrabandua salatu eta bear zan "lotsa" sartu barik.

A zelako "gol" a sartu neutsen, esaten eban barrezka geroago Adiran'ek.

Gainera kaboa Kantabria'koa zan lez, ain zuzen be angula asko arrantzaten dan Unkera aldekoa, ez jakin gero zelako "irakatsia" emongo eutsen alako urduritasun eta kezka serbitsua bete eben zaindari bie.

Adiran'eri, ia biar libratxuren bat artzen dozun, esan, eta barrezka bialdu eban kaboa.

ZUBIKARAI'tar AUGUSTIN



## ARRIAGAKO KONDAIRA (3n. Saria)

1996-garren urteko Orrillan, Johan Chrisostomus Arregi soiñugille gaztearen "sinfonia" edo eresaldi barria aurkeztu bear zaneko gaban, guztiz erre eban sutea eroan eban Bilboko Arriaga Antzokiak. Urrengo goizean, aurkezpena etorritako ogeitalau gizakumeren illotzak atara ebezan ondakin ketsuetatik; zorigatxeko soiñugille gaztearena, ostera, ezin izan zan iñon aurkitu.

Gaiñera, uriko antuztea zan Arriaga suntsitua berregiteko diru-ezagaitik —Bilbo osoaren Egiturakuntza-asmoak udalkutxak ustü ebazan eta— bertan bera itxi ziran Antzokiko orma baltzizkak, barrikuntza eginkor biurtu leitekeaneko garai oberen zai.

Sute aundi onek egunkari ororen izenburuak egun batez artu ezkeru, sei illabetetara beste idazki bat be duin izan eban, jarraian dagoana iñoana, ain zuzen:

### "ARRIAGA ANTZOKIA SORGINDUTA ETE?"

"Bilboko Udal Ertzaingoaren eskutik, Arriaga Antzokiko ondakiñetan jazoera arrigarri baten barri euki dogu. Iturri onein arabera, bost eskeko guztiz bildurturik aurkeztu ziran bart Udaletxeko Ertzaindegira salaketa imintera; antza danez, gaua emoten ari zan talde au Antzoki kiskaliko arresi barruan, zer eta irudi zuri, ikaragarri bat txillioka agertu ei jakenean. «Opera»-ko mamua Arriagan be ete?"

\* \* \*

Ondatutako Arriaga Antzokiko agerleku nagusia da. Zuleria zearo erreta dago, errezelak legetxe. Zerri eralgiak, euren margo diztiratsuak aspaldian galdu ebezanak, edatzen dira beruntz, erra-utsaz estalita. Beronein gaiñean, aulkiak eta ormetatik jausiriko arriak datzaz naastuta. Nonondik keak be urteten dauala dirudi ondiño. Goian, txurrua egondako gallurrean, uts aundia ikusi daiteke, oskarbian mozten diran abe baltzen artekit. Dardar dago artizarrak illuntze urdiñean.

Irudi zuri bat jezarrita dago antzeztokian, ixillean, barnelilluratuta. Arpegi zurbil eta begi illunak daukoz. Bere galpar baltzaranean ule zuriren bat dager. Chrisostomus da, suaren gaban aienatu zan eresgille gaztea; zoroaldiak jota, ondakiñotan bizi da orduandanik, aurkeztu ezin izan eban soiñuagaz amets egiñaz.

Karrak egiten dau zuleri ustelduak. Norbait, gizon bat urreratzen jako Chrisostomusi. Bizar txikerra eta

mustupil zorrotzak daukoz. Antxiñako jantziak daroaz, XIX mendeko erromantiko erara, ia soin osoa izkutatzen dautson sorbalkaiñeko eta guzti.

Chrisostomusek ez dauz bere urratzak somatu.

—Arrastion . —diño ezezagun illunak, keiñu adeitsu bategaz.

Sor dirau Chrisostomusek, erantzun barik. Susmur bat ezpaineratzen dau bein eta barriro.

—Arrastion —berresaten deutso ozenago sorbalkaiñekodunak— edo gabon.

—Oi, gabon, gabon! Nondik urten dau berorrek? Gabon izan begi berorrek, bai, bai.

Jagi egiten da, agertu barriari soak botaten.

—Zukatu nagikezu.

—Oi, bai, bai, baiña zein dozu izena orduan?

—Txerren eritxi daidakezu.

—Johan Chrisostomus Arregi naz ni. Eresgillea.

—Badakit.

Ibilge dagoan ikustiarraren ondoan biraka dabil Chrisostomus, zorionezko itxuraz. Bere lagunaren soiña, bizar gorria baizen txiker eta mearra, bere janzkera ezoizkoa, dana arakatu gura dau.

—Zelako pozkarioa zu amen egotea, Txerren jauna!

—Ez...

—Ixillik! —oiukatzen dau Chrisostomusek, beragandik ziñu griñatu bategaz aldenduz— ixillik, mesedez. Adi, adi egon!

—Zeri adi? —itauntzen deutso besteak, bapateko zirkiñaren aurrean arridura geiegirik erakutsi baga.

—Soiñuari jardesten deutso, begiak itxita, esku edegia aurrerantza, irribarretsu, lenagoko eldarniora itzulita.

—Zein soiñuri?

—Ez dantzuzu? —begiak zabaltzen dauz barriro— beti entzuten dut nik. Beti; egunero, gabero, unero. Nire soiñua da, au erre zaneko gaban aurkeztu bear izango eukeana... —abotsa goibeltzen jako.

Gautu egin da kanpoan, bitartean. Uriko argien erlantzak iragazten dira barruraiño, justuriak balira lez, antzokiko aiñubeak apurtuz.

—Baiña, zuk zelan ez ete dozu entzuten? —eztanda egiten dau Chrisostomusek— Arren, zagoz erne, zagoz erne... ez al da eltzen zure belarrietara urrutiko orroi bat, leba-leba doian itxasoarena lakoa...?

Txerrenek, benaz: —Ez.

—Bai, itxasoaren orroia jarraitzen dau zoroak, bes-teari entzun barik— olan asten da eta nire eresaldia, "Itzaro" eresaldia. Ezagutzen dozu Itzaroko kondaira?

—Ez —beste leku batera begitzen dau Txerrenek.

—Entzun egizu, ba, soiñua... gizon batek, itxasoan galdutako gizon batek, uiñen aurka burukatzen dau gau ekaitzuan. Itzaron antxiña bizi ei ziran lekaideak enparatzen dabe atxetatik. Beste gizon bat il dau, eziñezkoa zan maitasun baten kidearen neba, eta igesi etorren. Artu eta osatzen dabe lekaideak, euren jantzia be opesten deutsoela. Eta egunetan zear, baretuz doia-koz bere grin zarrak, itxaso baketsuaren urdintasun amaigearen aurrean... badantzuzu ze ederto adiazoten dauan au eresiak? Baiña, egun baten, txalupa bat urreratzen da ugarteraiño; emakume bat dator onetan. Bera da, bere maitea, ara bere billa joan dana. Leorreko ondartzan egongo da emakumea gabero, pizturiko krisallu bategaz bere zai. Ugeri alkartuko jako gabero be iraganetik askatu ezin izan dauan sasilekaidea. Olan egiten dabe luzaro, baiña azkenean Deabruak jazoten ari dana igarten ei dau...

—A, bai, oraintxe gogoratu dot kondaira ori —mozten deutso Txerrenek.

—...eta maitale gaztearen nebai jakin arazten deutse. Ondarretar doiaz oneik, emakumea ilten eta gizona eureganatzen dabe krisalluaz, era berean txikitzeko. Adizu, adizu eresiarene lastasuna! Itxasora jaurtiten dabez bien illotzak. Ondiño be, gau ekaitzuten Itzaro inguruan maitaleon arima erratuen oivak entzun ei daitezke, batak besteari deika, eta onein artean, salatu eban Deabruren algara ikaragarriak be bai.

Irribarre gaizto batek astintzen dau Txerren.

—Auxe bai kondaira ederra! "Nire soiñuaren da" esan neutsan nire buruari, eta soiñua asmau neban, kondaira baxen ederra, edo are ederragoa bearbada... ez dozu entzuten? Azken eresneurriak aizean dabiz oraindik... zer deritxazu?

—Emendik urten gura zeunke? —xuxurlatzen deutso Txerrenek.

—Emendik urten? Zertako? Ondo nago ni emen. Bakarrik nago, egia da, baiña zu nigaz zagoz oraintxe. Eta ikustiarrak etorten jataz noizbeinka. Bart, esate bate-

rako, bost lagun etzan ziran orko atarian. Alaitsu atara nintxaken nire soiñua entzun egiela deitzera, baiña arrapaladan joan ziran ni agertutakoan. Baiña itzuli leitekez edonoiz nire eresaldia gozatzer! Bestalde, ez da emen janari eza.

Txerrenek, suminduta:

— Ez ete dozu ulertzen egunero topaten dozun janari-azpilla neuk iminten deutsudanik!? Antzoki au erre zanetik sorotsi zaitut... nork uste dozu azken baten Arriaga Antzokiari su emon eutsola? Okituta naukozu... ez ete dozu ulertzen zure soiñua iñork ez dauala entzuten!!

—Ez ete dau iñork entzuten gero... —Chrisostomusek, uzkur.

—Neuk entzunarazi neike... zure arimaren truk —Txerrenek, asarre baga.

Keiñu bat egiten dau; argitu egiten da antzeztokia, eta ezer-ezetik ataraten diran izaki, mamarru barragarriak, saguzarren antzekoak, soiñu-tresnak joteari darautsoe lipar batez, bereala desagertzeko.

Chrisostomusek, mirestuta:

—Nire soiñua zan ori! Nire soiñua, bai... sekulan baiño indartsuago, sekulan baiño ederrago!... baiña, zelan emongo neuskizu nire arima...?

—Odol-tanta bakun bategaz.

\* \* \*

Arriaga Antzokiak beste barri bat eskeiñi eutsen egunkariari bidar bat geiago: Urrilleko gabardi epel batean, Uri Zarreko biztanleak parebako ikuskizun baten lekuko izan ei ziran. Bapatean, egundoko astrapala nabari izan zan suntsiriko antzoki barruan, inguruetakoa jende guztia iratzarteko aña. Argi diztiratsu batek izarniatu eban ondakiñetatik iruzpalau orduren artean. Eta barre lazgarri bat oartu al izan zan azkenean.

Eta asierako zarata eta azkeneko barre orrean bitartean, iñoiz ez entzun moduko soiñu berezi, gozo, lilluragarri batek dantzatu eban gabaizean, entzun ebenai maitasun, gorroto eta eriotzazko minkuneak gogoratu eutsezana, itxasoaren orroi sakona irudien otsen artean.

Urrengo goizean, Ertzaintzak Antzokia ikerkeran, Orrilleko suten desagertutzat emondako Johan Chrisostomus Arregi eresgillearen illotza aurkitu eben, bere ezipan tinkatuetan zorionezko irribarrea eukola.

EDUARDO RUIZ DE GORDEJUELA

# IV. ELEIZA TA GU

## GOIRIA

Eleiza gure Ama da. Kristoren irakatsien gordeleku. Bere Ebanjelioaren zaintzaille zabaltzaille. Guk sinismendunok menpekotasuna zor dauzagu Eleizari. Ta menpekotasun au egiteakaz agertu bear dogu. Gizonok ez dogu galtzen geure nortasuna, askatasuna, Eleizari menpekotasuna agertzean. Menpekotasun au berezko da. Zein da Eleizaren elburua? Eleizak Kristoren irakatsiak iragarten dauz, bere Ebanjelioa, bere sinisteak, bere aginduak.

Katolikoak Eleizaren irakatsiak eta aginduak bete bear dauz zeatz. Eleizari jarraitzea Kristo Berari jarraitzea da. Eleizaren irakatsiak eta aginduak betetzea ez da menpekotasuna, ez da morroitzia. Menpekotasun onek gure naimena osotu dagi, indartu ta sendotu, ez menderatu ta ezeztu. Jainko-menpekotasunak griñak ezi dagiz eta menderatu. Menpekotasun onek osotu dagi gizonaren izaera naimena bait dau indartzen. Beraz, Eleizari ta Eleizaren bidez Jaungoikoari menpekotasuna izatea ta agertzea ez da bakoitzaren nortasuna ta askatasuna galtzea.

Menpekotasun au Jainko-maitasunak eskatzen dau Kristok Berak diñoanez: "Maite ba'nozue, nire aginduak beteko dozuez".

Ona beste esaera batzuk esandakoak egiztutzeko.

"Zuei entzuten dautzuenak Neuri entzuten daust; eta zuek baztartzzen zaituenak, Neu bastartzzen nau, eta Ni baztartzzen nauanak Ni bialdu nauana baztartzzen dau (Luk. 10-16). Paulo Apostoluak: "Zuen zuzentzaille diranai, esaneko ta menpeko agertu zakieze; zuen arimai buruz erantzun bear daben ezkerro, zain bizi dira-ta orretan pozik jardun dagien eta ez atsekabez; azken-era au ez litzakizue on-eta (Ebertarrei, 13-17).

Eta berak ebertarrei idazkian: "Beraz menpean egon bear dozue; zigorraren bildurragaitik bakarrik ez, baita bidezkoa dalako be (Errometarrei, 13-5).

Zure Jainko Yaube'ren morroitzat jarrita dagon apai-zari edo ebazleari arrokeriagaitik entzun gura ez leuskiona, illa izan bedi" (Itzaldiak).

Eleizak berak Aita Santuen bidez beste onenbeste irakatsi izan dau.

Ona biren esaerak, geiago ez aitatzeke.

Amaikagarren Pio: "Jaungoikoak egi guztien gordeleku ta irakasle egin eban Eleiza, beraz, sinismendunak agertu 'begio- menpekotasuna Eleizari euren adimena ta naimena makurtuz".

Leon XIII'gerrenak: "Danak maite izan bear dabe Eleiza Ama ba'litz lez. Bere legeak bete, bere izena aintzakotzat artu ta bere eskubideak zaindu ta aldeztu".

Ainbat Eliz-Gurasoen esaerak ekarri daikeguz. Ona bi. Agustin donearena ta Anbrosio donearena.

Agustin doneak: "Senean dagoan iñork ez dau agertuko iritxirik adimenaren aurka. Bardin kristauak Idazti Deunen (Liburu Santuen) eta Eleizaren aurka".

Anbrosio doneak. "Menpekotasun bardiña, bera danak. Batera danak betekizun guztietan aginduta dagoan legea betetzeko".

Beste esaera ta iritxi asko aitatu daikeguz baiña ekarriak naiko.

Beraz auxe da gure bidea, gure jokabidea; menpekotasuna danean Eleizari.

# EKANDU ZARREN ALDIETAN

## (4n. Saria)

Bizkaiko itxasaldean dagon Bedarona izeneko erri txiki politan eleizara begira dago, "Etxetxu" izena daukan etxe txiki barri bat, lenago izen bardiñagaz baserri zar bat izan zana. Bertan bizi izan zan Santi izeneko gizon bakarra, bere lagun abere batzukin; au da, bei bat, txakur bat, asto gazte indartsu bat eta ollo batzuk.

Santi, eleiztarra ta siñismen aundikoa zan, langille trebea, ona, ta ibiltaria be bai. Astoari "EDER" deituten eutson eta bera zan ibillaldietarako albolagun zintzoa; Gernika, Lekeitio eta errotara joaten zanerako. Izan be, an inguruetakoko errietan ez egon asto ederragorik.

Aldi aretan dakizuen lez, gure Aberri maite onetan ekandu eder asko izaten ziran, aspaldian galdu diranak, alan ba, ipuin onek lenagoko egoera azaltzen dau.

Zarrak goguan eukiko dozuez sasoi artako ekandu batzuk, batez bere erri txikietakoak, indar aundiagoz edo gogotsu betetan ziralako.

Auetako ekandu bat zan kanpai otsakin jakin erasotea, eguerdiko ordu edo amabiak; iñor ilten zanean emakume edo gizona edo umea ba'zan, baso edo mendien bat sutan ba'zan, goiz kanpaia, eguerdiko Angelus, eta abar. Angelus kanpaia entzutean, soloetan, baratzetan edo egurretan iñor ba'zan, lana laga ta txapela kenduta otoi egiten zan erri guztietan. Santi, eleiz aurreko etxean bizi zalako, sarritan bere ondoan izaten eban astoa, otoi orrek egin orduan. Egun baten baña, Santi oartu zan berak otoi egiten eban artean, astoa ernai ta zoli egoten zala eta bururatu jakon aurrerantzian belaunikotu ta makurtutea bere asto "Eder" orreik zer egiten eban ikusteko ta ekiñen-ekiñez, astoa bera-be aurreko ankak belaunikotzen asi zan eta aurrerantzian beti, biak egiten eben makurketa eta Santik bere otoieta.

Laster zabaldu zan, bai errian eta bai auzoan - jazoera au eta siñistu ezinda geratu ziran Santi'ren egikizunagaz, astoak diran buru gogor ta okerrakin, "Eder" alako apaltasunaz ikustean. Orregaitik Santi eta bere astoak entzute aundia artu eben. Augaitik baña, Santi ez zan ezertxo be arrotu, bere apaltasuna erakutsiz. Berak ez eutson orrelako garrantzi larregui emoten, baña bere lagunak ekin-eta-ekin egiten eutsoen astelen baten Gernikara joan bear ebela astoa ta biak, ango ikusleak ikusi dagien zelako astoa daukon eta astoak ez dirala askok uste daben beste "asto" erakusteko. Joan ziran ba Gernikara eta bertako zeian egozala eguerdiko angelus kanpaia entzun da batera, Santi'k txapela kendu ebanican, astoa be belaunikotu zan eta orrela izan zan Santi'k bere otoieta amaitu arte. Au bai zala aupagarria-! Ango txaloak, eta zorionak ikusleagoan.

Egun batzuk aurrerago, euritza aundiak izan ziran eta alboko erri bateko errekatxo baten zegon zubia uriolak eroan eban eta bertatik oituta egozan ibiltariak ezin izan eben bakotxa bere tokira joan-etorrerak egin, egunoro egiten ebezan lez.

Orduan gogoratu ziran Santi eta bere asto "Eder" indartsuagaz eta beraganatu ziran, mesedez zubi ori egon zan tokian jarriko ba'litzake alde batetik bestera jentea eroan ekarri egiteko, erreka ori baretu arte. Santi'k poz-pozik artu eban eskabide ori guztientzako mesedegarri zala-ta, zar gazte ume ta aundi bere astoagaz erabilteko. Goiz baten, ango inguruko abade jauna be agertu jakon eta izketa bat egin ondoren bere naia agertu eutson uresandi joan gura leukela esanik, baña ez zala ausartu eskabide ori egiten. Bai jauna, igon asto gañera eta nigaz batera joango zara beste aldera. Igon eban lenengo abade jaunak ta bere ondoan Santi gureak, ta or doaz biak uretan aurrera. Abade jaunak bere oñak eta prakak bustita eta geroago ta barrurago uretan sartzen ziralako ikusirik, eta astoak bere burua goruntz jarri ebala, Santi'ri esan eutson. Otoi dagigun Santi, estu aldi onetatik urten dagigun. Au entzutean, gure Santi abadea baño estuago jarri zan, erantzunik: ez jauna, ez olakorik egin. Nire asto gazte "Eder", otoieta entzun da batera belaunikotu egiten da eta orduan irurok itoko gara.

Ixiltasun osoagaz beste aldera eldu ziranean, Santi'k esan eutson abadeari; orain bai, egin dagigun otoi benetan zoriontsu izan garelako. Gero erri guztiak eskatu eban egoera ori ospatu egin bear zala, bide batez eskerrak emonez Santi erriko seme mesede egilleari.

~ \ \ T \ \ \ ~ ~ . \ \ ~



Gure erriaren aurrerapenagaitik.  
Milla urtekoa eta gaurkoa dan gure kulturagaitik.  
Gure erritarren ametsakaitik, bizkaitarrentzat onena dan guztiagaitik.  
Gaur, atzo eta gero Bizkaia.

**Bizkaia beti.**